

**MATIA**  
Zaleak

2018ko  
Memoria



**Ezagutu  
gaitzazu**

**MATIA**  
Zaleak

# Ezagutu gaitzazu

## Nor da MatiaZale?

Matia Fundazioaren xedearekin bat egiten dugunok gara MatiaZale: "adineko pertsonen eta ezgaitasuna dutenen ongizatearen alde, autonomia, duintasuna eta pertsonalizazioa sustatuz".

## Zer egiten dugu?

Gipuzkoako gizartearekiko konpromisoa sustatu nahi dugu, adinekoek eta aniztasun funtzionala duten pertsonak bete gabe dituzten beharrei erantzuteko asmoz. Ildo berean, Matia Fundazioaren laguntza sareko elkarte eta erakundeen eta Gipuzkoako gizarte osoaren beharrei era erantzuna ematea da gure asmoa. Eta gainera, dugun xedean laguntzen duten pertsona eta elkarten aitortza burutzea.

## Zer dakar parte hartzeak?

- Zahartzea eta desgaitasuna agerian jarriz eta horren berri emanez apoiatu eta partehartzea, pertsonen ongizatea eta bizitza hobetzeko helburuarekin.
- Zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko jardueretan parte hartzea eta horien inguruko informazioa jasotzea. Gure lurraldearen hobekuntza sozialean laguntzea, gure gizarte errealitatearen funtsezko esparru batean arituz
- Zahartzearen eta desgaitasunaren esparruan dagoeneko lankide ditugun erakundeen sarean sartzeko aukera erraztea bilatzen dugu MatiaZalearen.


## Zure ekarpenak zerga onurak eskuratzeko eskubidea ematen dizu

Pertsona fisikoa edo juridikoa izanda, zure ekarpen ekonomikoak zergak arinduko dizkizu hurrengo errenta aitorpenean. Dohaintzaren ziurtagiria bidaliko dizugu horretarako.

# Ezagutu gaitzazu



=780 Matiazale 2018an



# Boluntarioriotza

**MATIA**  
Zaleak

# Boluntariotza

Boluntariotza oso balore garrantzitsua da Matia Fundazioan. Boluntario eta elkarte askok kolaboratzen dute oso era ezberdinetan, baina beti ere beraien denbora eta ilusioa emanaz.



24916 ordu



3460 pertsona boluntario

56

Laguntza jarraitua edo  
aldian behingoa

175


Aisialdi jarduerak  
eta irtenaldiak

2430

Kultura jarduerak

799

Belaunaldi arteko  
proiektuak



164 elkarte kolaboratzaile

# Belaunaldi arteko programak

Hona hemen adibide bezala argazki batzuk, belaunaldi arteko programarenak. Ekintza hauen bitartez ezagutza transmititzen da eta belaunaldien arteko sensibilizazioa jorratzeko bide dira eta estereotipoak gainditzeko.



Maria eta Joseko ikasleak Otezurin denbora eta esperientziak elkarrekin elkarbanatzen.



Orixeko ikasleak Elizaranen, tradizioak elkarbanatzen.



Jakintzako ikasleak Rezolan, jolas ezberdinen bitartez ikasiaz.



Aquariumen Fraisoroko egoileak San Millan ikastolako ikasleekin, beraien itsasoko bizipenak transmititzen



Lamourousen bizi diren pertsonak English Schooleko ikasleekin.



Ekintzako ikasleak Rezolan.



Berminghameko eguneko zentroan Axularreko gazteak bizipenak elkarbanatzen.



Pedro M<sup>a</sup> Otañoko ikasleak Fraisoron, jolas klasikoak elkarbanatzen.



# Ekintza Kulturalak

Hala nola, taldeek eta elkarteek baita ere laguntzen dute ekintza kulturalakin, aisialdian eta irteeretan, ondorengo argazkietan ikus daitekeen bezala:



Easo Politeknikoarekin Donostiako toki esanguratsuetara irteerak egiten ditugu



Karmeneko Jaietaz disfrutatzen Elizaranen.



Fraisorora urtero gerturatzen den familiarteko tanborrada.



CWADonostiari esker zentro ezberdinetako pertsona askok egiten dituzte irteerak horrelako momentuak bizi ahal izateko



Amara Berri ikastolatik Berminghanera etortzen dira festaz guztiok gozatu ahal izateko.



Landarbaso Abesbatza Petra Lekuonako emanaldian



Bonkora baita ere zentro askotara etortzen da urtero, musikaz blai eginez guztiok.



Chillida Lekura bisita IZA zentrotik, Luis Chillidaren kolaborazioari esker.



KONPROMEZUA

SOLIDARITATEA



PARTEHARTZEA

# Kolaboratzaileak

**MATIA**  
Zaleak

# 2018ko Kolaboratzaileak

## Formakuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



# 2018ko Kolaboratzaileak

## Formakuntza zentroak - Elkarteak- Enpresak



# Komisio mixtoa

# Komisio Mixtoa

2018an, eta prozesua partehartzaileagoa egiteko asmoz, MatiaZaleak komisio mixtoa sortu dugu, gutxi gora-behera 4 hilabetetik behin elkartzeko asmoarekin guztion artean elkarbanatu eta helburuak sortu ahal izateko.

Komisioa pertsona eta elkarte ezberdinez osatuta dago, MatiaZalearen errealitateko arlo ezberdinetakoak: gure zentroetan bizi direnak, familiartekoak, langileak, patronoak, formakuntza zentroak, boluntariotza elkarteak...



# Urteko Ekitaldia

**MATIA**  
Zaleak



# Urteko Ekitaldia

Urriaren 30ean **MATIAZALEAK URTEROKO IV. EKITALDIA** ospatu genuen Orona Fundazioan.

280 MatiaZale elkartu ahal izan ginen helburu bikoitzarekin: Matia Fundazioan boluntario diren pertsona eta elkarteei aitortza, eta bestalde, MatiaZaleaken berri, lorpen eta erronkak aurkeztu. 2018ko ohorezko MatiaZale aitortza Nagusilaneri eman zitzaion.

Elkargune polita izan zen, non baita ere aukera izan genuen zaintzen duen gizartea nola eraikitzen dugun hausnartzeko ikuspuntu ezberdinetatik.



Kolaboratzaileak:



HIRUZTA  
BODEGA



Kaleak  
lagunkoia



DYA  
GIPIZKOA

NAZARET

Ø200  
SLOW · KAFETEGIA

# Sensibilizazio ekintzak

# Ekintzak



II. MatiaZale Txiki ARTEan



II. Gabonetako Postalen Lehiaketa



I. MatiaZaleak Ideia Lehiaketa



Hand Made Party



Hiruztan Tailer Solidarioa



# Ekintza

## II. MatiaZale Txiki ARTEan

Haurren arte lehiaketa, non haurrak adineko pertsoneri gerturatzea, erlazioak sortzea eta artelanetan adierazi behar zituzten baloreen inguruko hausnarketa ziren helburu (besarkada, familia, etxea, autonomia, errespetua, kolaborazioa...)

Sari banaketarako eta tailerretarako Luis Chillida eta David de Jorge gerturatu ziren, biak Ohorezko MatiaZale.

144€ko gastuarekin materialetarako eta partehartzaileen oparietarako. 91 artelan jaso genituen eta 130 pertsonak partehartu zuten sari banaketa eta tailerretan.



Kolaboratzaileak:



# Ekintza

## II. Gabonetako Postalen Lehiaketa

Gabonetako postalak sortzeko lehiaketa. Irabazlea Matia Fundazioak Gabonetako postal gisa erabilia izan zen.

Gastuak: 0€. Jasotako postalak 65 izan ziren.



1.go saria



2. saria



3. saria

Kolaboratzaileak:



# Ekintza

## I. Matiazaleak Ideia Lehiaketa

Ideia lehiaketa bat sortu genuen, eta ideia hauek proiektu edo ekimen ezberdinen bitartez adineko pertsonen eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrei erantzuna eman behar zieten

Helburua ekimenak sortu eta prozesua partehartzailea egitea zen.

Irabazleek La PERla Talaso Sporteko gonbidapenak jaso zituzten, kolaboratzaile ziren heinean.



Kolaboratzailea:



# Ekintza

## Hand Made Party

Kutxa Kulturaren Martxoaren 3an egin genuen elkartzeko ekintza Amarenak eta La Niña Bonitak antolaturik, non adineko pertsonak arreoak, eta baloreen inguruan hitz egiteaz gain, aurreko mantalak kustomizatu genituen eta David de Jorgeren bisita izan genuen. Bidutako dirua (285€) "Kultura Bir-Sortzen: nere arreoak, gure legatua"ri zuzendu zitzaion



Kolaboratzaileak:



# Ekintza

## Hiruztan tailer solidarioa

Txakolinaren moldakortasunaren inguruan egindako tailerra Irailaren 8an, Hiruzta eta Lluch Wine&Gastronomyk antolaturikoa. Non disfrutatu eta ikasteaz gain, MatiaZale berriak ezagutu ahal izan genituen, gure xedea zabaldu, eta 405€ bildu "Kultura bir-sortzen: nere arrea, gure legatua" ekimenari zuzentzeko.



Kolaboratzaileak:

HIRUZTA  
BODEGA

LLUCH  
Wine &  
Gastronomy  
Marketing



An elderly woman with short white hair, wearing a yellow knit sweater, is sitting in a wheelchair. She is smiling and holding a small white rabbit close to her face. Another person's hands are visible, gently holding the rabbit. The background shows a bright, indoor setting with a wooden table and a purple decorative ball.

KOLABORAZIOA

A young woman with long dark hair, wearing a white shirt, is sitting at a table and playing a board game with an elderly man. She is focused on the game, and the man is looking on. The board game has colorful pieces and a grid. The setting appears to be a living room with a green leather sofa in the background.

HARREMANAK

Two elderly men are sitting together in a well-lit room. One man is wearing a blue sweater and is smiling at the other man, who is also wearing a blue sweater. They appear to be engaged in a conversation. The background shows a window with greenery outside.


IKASKUNTZA

# Ekimenak

**MATIA**  
Zaleak

# Ekimenak

2018an lortutako ekimenak  
edo martxan jarritakoak:






# Ekimenak

## Lortutako Ekimenak

- ✔ Oztoporik gabeko terapia: plis-plas, uretara!
- ✔ Elkartasun doinuz
- ✔ GUAU momentuen alde
- ✔ Erlazioak sortzen: hobe gurpil gainean!
- ✔ Kultura bir-sortzen: nere arreoa, gure legatua
- ✔ Oroitzapenak entrenatzen
- ✔ Petra eta bertan bizi direnentzako legatua

# Ekimenak

## Martxan dauden ekimenak

-  Tanborrada solidarioa
-  Natura ere gure ETXEAREN zati bat da
-  Jokaldiaren luzapena



ERAIKI

BALOREAK



TRANSMITITU

# Lortutako ekimenak

# Ekimena

Oztoporik gabeko terapia:  
plis plas, uretara!



Emaileak:



enpresa 1



Lortutako ematea:

5.000€



# Ekimena

## Oztoporik gabeko terapia: plis plas, uretara!

Ekimen hau aniztasun funtzionala duten eta IZAn bizi diren pertsonentzako hidrocinesiterapia programa bat da, bi ardatz nagusikin: kirolaren onurak eta gizartean integrazioa.

2018ko Irailetik, astero txandakatuiz Hegalakera 5 talde joan dira beharrezko apoioekin, non uretan terapia egiten duten irisgarri den igerileku batean espezializatutako fisioterapeuta batekin eta helburu pertsonalizatuekin.

Onurak asko dira: fisikoak, komunitatean integrazioa, emozionalak... Esperientzia pertsonalak ikus ditzakezue webgunean eta Matia Fundazioko blogean.

Guztira 21 pertsonak partehartuko dute eta 2019ko Martxoan bukatzen da.



Kolaboratzaileak:



# Ekimena

## Elkartasun doinuz



Emaileak:



Fundazio 1



Orona Fundazioak bere gain hartzen du.

# Ekimena

## Elkartasun doinuz

Oraingo honetan ere Orona Fundazioak aukera paregabea eskeini zigun, non Matia Fundazioan bizi diren 9 pertsonak Orona Fundazioak antolaturiko kontzertu solidario batetaz gozatu ahal izan zuten Abenduan. Musikak beste leku batzuetara eramaten gaitu...

Orona Fundazioak kolaboratzen du sarrera, garraio... eta noski garrantzitsuenarekin: boluntarioki laguntzaile joan ziren Oronako langile eta beraien sareko Axular Lizeoko ikasleekin.

Ongizatea eragin zuten konpainia eta musikaren bitartez.



Kolaboratzaileak:



# Ekimena

## GUAU momentuen alde



Emaileak:



392 pertsona



Aurreikusitako helburua:

5.000€



Lortutako emateak:

9.246€

# Ekimena

## GUAU momentuen alde

Fraisoro zentroan txakurrekin terapia tailerrak burutzeko ekimena da, non Muxukan enpresako espezialistak gerturatzten diren astero.

Aurreikusitako iraupena urte batekoa zen, baina lortutako diruak jarraipena ematea ahalbidetzen du denbora luzeagoan.

2018ko Urritik martxan gaude eta 31 pertsona ari dira partehartzten taldeetan. Baina ahaztu gabe beraien inguruaz, familiarteko, langile...

Emateen bitartez eta Hiruztako opari solidarioaren salmenten bitartez lortutako diru guztia Muxukaneko enpresaren sesioei zuzentzen zaio.



Kolaboratzailea:

HIRUZTA  
RODEGA

# Ekimena

## Erlazioak sortzen: hobe gurpil gainean



Emaileak:



33 pertsona eta erakunde 1



Aurreikusitako helburua:

6.050€



Lortutako emateak:

6.050€

# Ekimena

## Erlazioak sortzen: hobe gurpil gainean

MatiaZale den elkarte batentzako ekimena da: Cycling Without Age Donostia.

Elkarte honen helburua boluntarioen bitartez zentroetan bizi diren adineko pertsonak trizikloetan paseatzea da, isolamendua gutxitzeko asmoz, erlazioak sortu, konektatu eta berdeskubritu, toki berrietara iritsiz.

Lortutako aurrekontuarekin triziklo berri bat erosi zen elkartearentzat eta iada martxan dago ongizatea sortuz. Prueba bezala Matiako Lamourous zentroan utzi da trizikloa irteera gehiago egiteko asmoz.



Kolaboratzaileak:



# Ekimena

## Kultura bir-sortzen: nere arreoa, gure legatua



Emaileak:



72 pertsona



Aurreikusitako helburua:

2.500€



Lortutako emateak:

2.572 €



# Ekimena

## Kultura bir-sortzen: nere arreoa, gure legatua

Kultura birsortzen Bermingham Eguneko Zentroko adineko pertsonei zuzenduriko proiektu bat da, non tailerren bitartez, gure kultura ondarearen eta memoria historikoaren zati batzuk errekuiperatzea bilatzen zen (arreoa kasu honetan). Horrekin legatu bat sortu eta era berean parte hartu zuten adinekoen memoria landu eta autoestima hobetu.

Aurrekontua lortu ondoren Kutxa Fundazioa, emateak eta antolatutako bi ekintzen ondorioz, astero tailerrak egin ziren Urritik Abendura, non 10 emakumek parte hartu zuten, kultura, jostintza, diseinuarekin lotura zuten emakumeak. Eta esperientzia pertsonalen bitartez ezagutzak kontatzen eta transmititzen joan ziren.

Lortutako emateak Amarenak eta La Niña Bonita-Espacio Creativo tailerren dinamizaziorako, ikerketarako, prestakuntza eta materialetarako zuzendu ziren.



Kolaboratzaileak:



# Ekimena

## Oroitzapenak entrenatzen



Emaila kopurua:



2 erakunde



Futbolista Beteranoen  
Elkarteen Federakuntzak eta  
Real Sociedad  
Fundazioak bere gain  
hartzen dute ekintza.

# Ekimena

## Oroitzapenak entrenatzen

Rezolan horrelako programa bat egin genuen eta horrelako positiboa izan zen, Otezurin, Zumaian, berriro egin ahal izan dugula.

Futbolean oinarritutako erreminiszentzia tailerrak dira, non 8 adineko pertsonek partehartu duten eta 12 asteko iraupena izan du. Futbola herramienta bat bihurtzen da memoria lantzeko, horri lotutako oroitzapenak gogorarazteko. Eta bertan partehartu dute narriadura kognitiboa duten eta bizia futbolari lotuta izan duten pertsonek, beraienezat futbola esanguratsua izan delako eta ongizatea sortzen dielako.

Bi saioetan Zubieta eta Anoetara joan dira, leku hoiek gako direlako Errealarentzat. Tailer hauek beterano diren futbol jokalariek burutu dituzte.



Kolaboratzaileak:



# Ekimena

## Petra eta bertan bizi direnentzako legatua



Emaila kopurua:



pertsona 1



Lortutako emateak:

105.000 €

# Ekimena

## Petra eta bertan bizi direnentzako legatua

Ekimen hau emate bati esker, legatu solidario bati esker egingo da. Pertsona batek erabaki zuen bere ondasunak Petra eta bertan bizi diren pertsoneri uztea. Izan ere, eskuzabaltasuna ez da iraungitzen, ez da bukatzen eta berean irauten du.

Legatu solidario honekin Petra Lekuona zentrorako aukerak baloratzen ari gara. Espazio bat egokituko da, era batean edo bestean, bertan bizi diren pertsonak disfrutatu ahal izateko.



# Martxan dauden ekimenak

# Ekimenak

## Martxan dauden ekimenak 2018a bukatutakoan



Natura ere gure ETXEAREN zati bat da



Jokaldiaren luzapena



Tanborrada solidarioa

# Ekimena

## Natura ere gure ETXEAREN zati bat da

**Hasiara: 2018/11**



Emaila kopurua:



pertsona 1



Aurreikusitako helburua:

235.000€



Lortutako emateak:

200.000 €



# Ekimena

## Natura ere gure ETXEAREN zati bat da

Berminghamentzat da ekimen hau, non diseinu, itxitura eta egokitzapen bat egiten ari da terrazan, espazio ezberdinak identifikatzen eta NATURA TXOKOAK sortzen.

Elementu terapeutiko eta aisialdirako espazio ezberdinak dituen zentroan bizi garen pertsona eta inguru familiar eta sozial guztiarentzat. Egunerokotasunaren ekintzak lehenesten diren terraza bat, inguru osasuntsu bat, non lurra lantzen den, landareak zaintzen diren eta zentzumen eta oroitzapenak estimulatzen diren. Espazio honetan egotea gustoko izango dugu eta elkarrekin biltzea baloratzen da.

Aurrekontu hau guztiz beharrezko obrak, materiala... osatzera doaz. Baina ez dugu guztiz osaturik, beraz, oraindik bada aukera laguntzeko, jarraitzen dugu!



# Ekimena

## Jokaldiaren luzapena

Hasiera: 2018/12



Emaila kopurua:



0 pertsona



Aurreikusitako helburua:

3.600€



Lortutako emateak:

0 €

# Ekimena

## Jokaldiaren luzapena

Esperientzia onak beti errepikatu behar dira eta futbola beti da aitzaki on bat. Baina memoria aktibatu eta oroitzapen positiboak gogoratzeko bada, oraindik hobe!

Gure Argixao zentroko pertsonak partehartuko dute. Pertsona hauei gogoratzea kostatzen zaie, baina futbola maite dute era berean, eta bizi-istorioan loturak eta oroitzapenak dituzte horrekin lotuak.

Beste horrelako tailerretan bezala, aurrekontu hau behar dugu tailerrak eta irteeretako garraioa ordaintzeko, Zubieta eta Anoetara.



Kolaboratzailea:



# Ekimena

## Tanborrada Solidarioa

Hasiera: 2018/11



Emaile eta partehartzaile  
kopurua:



64 pertsona

# Ekimena

## Tanborrada solidarioa

2018an Matia Fundazioko lehen tanborrada osatu da, eta 2019ko Urtarrilaren 20an estreinatu.

Baina tanborrada solidario bat da, zeren eta Matia Fundazioan bizi diren pertsona batzuk, beraientzako esanguratsua dena festa hau, partehartu ahal izan dute. Aurten 4 traje solidario sortu dira, 4 pertsonak partehartzen dute kosturik gabe, boluntarioen laguntzarekin, familiartekoen laguntzarekin eta erlazioak sortzen guztion artean.

Tanborrada ezberdin eta solidario bat.



Kolaboratzaileak:




# Emateak

**MATIA**  
Zaleak

# 2018ko emateak

Guztira emateak= 32.586€



**Beste aukera  
batzuk  
kolaboratzeko**

**MATIA**  
Zaleak




# Opari Solidarioak

Opari solidarien salmentako etekinak ekimenei zuzentzen zaizkie. Gaur egun salgai ditugu zentroetan eta online dendan:



OPARI TXARTELEN aukera dugu baita ere, ospakizun ezberdinetarako (ezkontza, jaunartza, enpresa ospakizun...) non emate bat egiten den eta gonbidatuei txartelak ematen zaizkien.



Jarri gurekin harremanetan eta behar duzuna kontaiguzu.

**MATIA**  
FUNDAZIOA

*Avanzamos por un bienestar mayor*

**MATIA**  
Zaleak

[www.matiazaleak.eus](http://www.matiazaleak.eus)



Síguenos